

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[10. zk.] 2025eko azaroa

BIDEAN

Nafarroako Gobenuko
garraio sanitarioaren
egitura berria

CASTEJONGO LIBURUTEGIA

Euskarazko irakurketaren
sustapena

IRUÑALDIA

Euskarazko kultur
jaialdia Iruñean

NAFARROAKO LARRIALDI ZERBITZUAK

Suhiltzaile euskaldun bati elkarrizketa



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea



Iruñeko Cuatro Vientos zubian, Iratiko tren errailetik irtetearen bista orokorra. Erdialdean, tren elektrikoko bagoi bat, galtzadaren gainetik errailetatik aterata, zubiaren ertzetako batean zintzilik; inguruan, oinezkoen taldeak, istripuaren ondorioei begira. Atzealdean, Cuatro Vientos bidegurutzeko eraikinak eta Atarrabiarako errepidea (egungo Marcelo Celayeta kalea).

Foru Diputazioko Bide Zuzendaritzaren argazkia (1933. urtea).

Vista general de un descarrilamiento del ferrocarril de "El Irati" en el puente de Cuatro Vientos en Pamplona. En el centro, un vagón de mercancías de ferrocarril eléctrico descarrilado sobre la calzada, cuelga en uno de los márgenes del puente; a su alrededor, grupos de transeúntes observan los efectos del accidente. Al fondo, edificaciones del cruce de Cuatro Vientos y la carretera a Villava (actual calle Marcelo Celayeta).

Fotografía de la Dirección de Caminos de la Diputación Foral (año 1933).

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[10. zk.] 2025eko azaroa

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Komunikazio Zerbitzua,
Nafarroako Suhiltzaileen
Zerbitzua,
Liburutegien Sarearen Atala,
Iruñeko Udala,
Nafarroako Parlamentuko prentsa
zerbitzua

Diseinua: cobo-munarriz.com

Irudiak: Freepik

Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako
artikuluak
berriatut daitezke bai osorik, bai
zatika,
baina artikuluak nondik atera
diren aipatu
behar da beti.
ENAP aldizkariak ez ditu derrigor
bere egiten
artikulu eta kolaborazioetan
agertzen diren iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

4-7 **Elkarrizketa:**
Argia Langarika

8-9 **Erreportajea:**
Bidean

10 **Gobernutik:**
Castejongo liburutegia

11 **Udaletatik:**
Iruñaldia

12-13 **Parlamentutik:**
Boiseko jaialdia

14 **Hiztegi terminologikoa:**
Larrialdiak

15 **Euskarabidetik:**
Testu elebidunen gida

16-17 **Ohar historikoa:**
Beste garai bateko irainak

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena
euskarabidea@navarra.es helbidera.

ELKARRIZKETA



ARGIA LANGARIKA

**Nafarroako
Gobernuko Suhiltzailea**

Suhiltzaileen lanari buruz pentsatzen dugunean, suak itzaltzea burura etortzen zaigu baina beste lan ezberdin asko egiten dituzue, ezta?

Bai, horrela da. Suhiltzaileon lana oso askotarikoa da, eta batez ere Nafarroan, non beste erkidego batzuetako suhiltzaileek baino eskumen gehiago ditugun. Orokorrean suhiltzaileak pertsonen, animalien eta ingurugiroaren babes lanetan aritzen gara, eta honen barruan ematen den larrialdien kasuistika oso askotarikoa da: baso-suteak, etxe eta industriako suteak, trafikoko istripuak, pertsonen bilaketak, pertsona eta animalien erreskateak, isuri kutsakorren kontentzioa, uholdeetan lokal eta etxeetatik ura ateratzea, leku publikoetan dauden erle eta liztorrak harrapatzea, erortzeak dauden etxeak egonkortzea, bide publikora erortzen diren objektuak kentzea (etxe batetik eroritako teilak, errepidera eroritako zuhaitzak...), etab. Aipatzekoa da ere,, halaber, Nafarroako Suhiltzaileen zerbitzuan bi talde espezializatu ditugula: alde batetik Uretako Erreskate Taldea eta bestetik Sorospen Talde Teknikoa, zeinek mendiko eta beste erreskate teknikoak burutzen dituen.

Suhiltzaileak, kaboak, ofizialak... Nola antolatzen duzue lana Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan?

Parkeetan, suhiltzaileak eta kaboak egoten dira. Modu orokorrean esan dezakegu

suhiltzaileak interbentzioak egiteaz arduratzen direla, eta kaboak lan hori zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen direla. Interbentzioa konplexua bada, ofizialorde bat arduratzen da interbentzio hori zuzentzeaz.

Ofizialordeak aginte eskalan mandoan kaboen gainetik daude eta normalean bi daude guardia bakoitzeko; bat iparraldeko parkeetarako (Cordovillan) eta beste bat hegoaldeko parkeetarako (Tafallan). Interbentzio konplexuak ematen direnean edota bi parke edo gehiagoren arteko koordinazioa behar denean aktibatzen dira, eta istripua gertatu den lekura mugitzen dira. Udan (baso suteak direla eta) edo egoera berezietan (bero-bolada olatu batean, adibidez), bi ofizialorde baino gehiago egoten dira.

Eta azkenik, ofizialak daude. Ofizialak Nafarroako operatibo guztiaren arduradun gorenak dira. Guardia egun bakoitzeko ofizial bat dago Nafarroa osorako.

Non kokatzen dira Nafarroako suhiltzaileen egoitzak?

Osora Nafarroan 12 suhiltzaile parke daude. Bi Iruñerrian kokatzen dira (Cordovilla eta Kosterapea) eta beste 10ak Nafarroako geografia osoan banatuak daude herri eta hiri ezberdinetan: Oronoz, Auritz, Nabaskoze, Zangotza, Altsasu, Lizarra, Azkoien, Tafalla, Lodosa eta Tuteran.

ELKARRIZKETA

Hauez gain, Miluzeko basea dago, parke bezala hartzen ez dena baina non udako hilabetetan Helikopteroz Garraiatutako Brigada Forestala dagoen.

Aipatzekoa da, halaber, ere suhiltzaile boluntarioen 7 parke daudela: Izaba, Agoitz, Luzaide, Bera, Lesaka, Leitza eta Goizueta.

Suhiltzaile plaza lortzeko proba fisiko gogorrek etortzen zaizkigu burura, baina horretaz gain ere gauza asko ikasi behar dira, ezta?

Bai, proba fisikoak gogorra dira suhiltzaile plaza lortzeko, baina plaza lortzeko gogorrena eta erabakigarriena ezagupen teorikoak dira. Bertan geografia, legeria, suhiltzaile lanerako ezagupen teknikoak eta sorospenaren inguruko eduki sakonak ikasi behar ditugu. Eta ez da bakarrik ikastea, baizik eta azterketan beste hautagaiak baino hobeto egitea, izan ere hautagaien artean dagoen konpetentzia izugarria baita. Nire kasuan ia bi urte eman nituen buru-belarri egunean batez beste 8 ordu inguru ikasiz, astelehenetik larunbatera. Gogor entrenatu behar nuen ere, baina niretzat burua arintzeko tresna ere bazen, betidanik oso kirolaria izan naiz eta gustura hartzen nuen.

Gainera, etengabeko prestakuntza berezia jasotzen duzue. Nolakoa da?

Nik esango nuke, behin zerbitzuan gaudela, 3 motatako etengabeko formakuntza jarraitzen dugula suhiltzaileok. Alde batetik, egunero parkean goizean maniobra edo ariketa moduko bat egiten dugu eta arratsaldean formakuntzako bideo bat ikusten dugu. Maniobran egoera ezberdinak planteatzen dira (trafiko istripu bat, tximinia sute bat...) eta horiei konponbidea eman behar diegu material ezberdinekin. Formakuntza bideoetan, maniobra oso bat egin orde, ezagupen teorikoagoak errepasatzen edo ikasten ditugu.

Bestetik, Zerbitzuak urtean zehar hainbat formakuntza teoriko-praktiko antolatzen ditu gai ezberdinen inguruan, adibidez: plaka fotovoltaikoetan nola egin interbentzio bat, baso suteetako interbentzioak... Formakuntza hauek suhiltzaile guztientzako dira.

Bukatzeko, parke bakoitzak bere formakuntza ordu propioak antolatzen ditu bere beharren arabera. Esaterako, bere inugurukoak instalazio konplexuren batean (industria, zahar-egoitza...) nola egin interbentzio bat edo parke horren ezaugarriengatik bereziki erabiltzen den tresna baten edo teknika espezifikoaren erabilpenaren ingurukoak.

Aldi berean, arlo ezberdinetako lan taldeak daude, non teknika, prozedura eta erreminta ezberdinen inguruan lan egiten duten, hauek zerbitzuaren barruan sartzeko.

Zein material erabiltzen dituzue lanean? Kamioiaz gain, zein ibilgailu darabiltzazue?

Suhiltzaileon lana hain askotarikoa den heinean, erabili beharreko materialak ere askotarikoak dira: mahukak, ur-lantzak, su-itzalgailuak, sokak, poleak, mosketoiak, erreminta hidraulikoa, motoponpak, arnasketa ekipamendu autonomoa, motozerra, tresna txikiak (bihurkin elektrikoak, zulagailuak...) eta abar eta abar.

Ibilgailuei dagokionez, parkearen inguruaren eta honek egiten dituen interbentzio motaren arabera, ezberdinak dira eta behar horietara doitzen dira, baina era orokorrean:



ELKARRIZKETA



kamioiak (hirikoak, landakoak eta 4x4koak), autoeskalak, 4x4 kotxeak eta anbulantziak erabiltzen ditugu.

Helikopteroei dagokienez, Nafarroako Gobernuak enpresa batekin kontratu bat dauka. Helikopteroak eta pilotoak enpresaren langileak dira, baina Suhiltzaileen Zerbitzuarekin lan zuzena egiten dute, baso-suhiltzaileak edota Erreskate Teknikoko Taldekoak behar den lekuetara eramanez, han lan ezberdinak egiteko. Helikopteroak Miluzeko basean egoten dira.

Zer jakin behar dugu herritarrok suteen prebentziorako?

Orokorrean Nafarroako Gobernuak, Suhiltzaileen Zerbitzuak eta bide ofizialek ematen duten informazioari kasu egin behar zaio, bai suteen prebentziorako, baita behin sute bat dagoenean egin beharrekoari buruz ere. Honen inguruan eguneratua egoteko ongi dago erakunde hauen sare sozialak jarraitzea. Adibidez, Nafarroako Suhiltzaileen Twitterreko kontuan (@bomberos_na), herritarrentzako suteen prebentziorako euskarazko eta gaztelerazko bideo informatiboak partekatzen dira.

Bestetik, su batean aurrean bagaude bagara, lehenik eta behin geure burua babestu behar dugu (sutetik urrundu, gela batean konfinatu...) eta ondoren 112 zenbakira deitu suhiltzaileak eta beste baliabideak bertaratzeko. Gainera 112tik jarraibideak emango dizkigute egoerari aurre egiteko.

Udako kanpainan Nafarroan suteen arrisku handia aktibatu zen: tenperatura altuak, euri gutxi, hezetasun baxua, hegoaldeko haizea. Aurten egoera gogorra izan da... Nola prestatzen zarete suhiltzaileen zerbitzuan halako kanpainetarako? Zein da gaur egungo egoera?

Suteen arriskua hain altua denean parkeak suhiltzaile gehiagorekin indartzen dira, eta materialak eta ibilgailuak bereziki interbentzio

horretarako prestatzen dira. Horrez gain, arlo horretako maniobrak eta formakuntza bideoak gogorarazten dira. Esan dezakegu, nahiz eta suhiltzaileok beti edozertarako prest gauden, kasu horietan baso-suteetarako bereziki prestatzen garela.

Suhiltzaileok oso argi daukagu baso-suteak geroz eta maizago emango direla eta hauek larriagoak izango direla aldaketa klimatikoarengatik, landa eremuen despoblazioagatik eta azken urteetako basoen kudeaketa urriarengatik. Nafarroako suhiltzaileen artean, baso-suteen errefortzu talde bat eratu nahi da (Erreskate Teknikoko Talde eta Uretako Erreskate Taldearen antzera) modu espezializatuago batean arazo honi aurre egiteko. Espero dugu hurrengo hilabeteetan hau errealitate bat izatea.

Suhiltzaileen zerbitzuan lan egiten duten gehienak gizonezkoak dira, nola animatuko zenituzke emakumeak lan honetara gerturatzeko?

Egia da batzuetan gogorra dela gizonezkoekin bakarrik lan egitea, alderdi batzuetan euren lan egiteko eta funtzionatzeko era desberdina delako. Ni urteetan zehar egon nintzen pausua ematera ausartu gabe, suhiltzaile lana egiteko "beharrezko" gaitasunak ez nituela uste nuelako. Baina, Nafarroako Zerbitzuan (eta beste batzuetan ere) suhiltzaile emakumeak bazeudela ikusita, pausua ematera ausartu nintzen. Eta barruan egonda, uste dut esan dezakedala, lanerako gaitasunak ditudala eta

orokorrean emakumeok suhiltzaile zerbitzuak aberasten ditugula.

Aldi berean, ikusi dudanarengatik, gizonezko gehienek era naturalean hartzen dute emakumeak zerbitzuan sartzea, eta euren lanerako positiboki ikusten dute emakumeak lankide moduan izatea.

Beraz, suhiltzaile izan nahi duen emakume guztiak animatzen ditut pausua ematera. Emakumeok asko dugu egiteko eta emateko suhiltzaile moduan ere bai!

Zu euskalduna zara. Nola uztartzen duzu zure lana eta euskara? Abantaila al da zuretzat?

Ahal dudan heinean, euskara erabiltzen saiatzen naiz nire lanean. Nire parkean, Auritzen, euskaldunak ere badaude, eta eurekin bakarrik nagoenean euskaraz egiten saiatzen naiz. Baina normalean euskara ez dakien norbaitekin gaudenez, joera azkenean gazteleraz egitea da eta batzuetan erregistroz aldatzen ibiltzea ez zait erraza egiten.

Niretzat euskara ezagutzea eta erabiltzea abantaila argia da, aberastasun bat da, kulturalki eta sozialki. Suhiltzaile lanari buruz ari garenean, zeinetan pertsona egoera zaurgarri batean egoten den (gaixo, zaurituta...), bere hizkuntzan komunikatu ahal izateak, pertsona horrekiko gertutasun bat suposatzen du eta erosotasun bat suposatu

diezaioke momentu txar horretan. Gainera haren hizkuntza eskubideak errespetatzen ditugu. Aldi berean, pertsona horrek zehatzago adieraz dezake zer gertatu den edo zer gertatzen zaion, eta guk ere egoera horri hobeto erantzun diezaiokegu.

Azkenik, lan arriskutsua egiten duzuela jakin badakigu, zure bizitza inoiz arriskuan sentitu duzu? Norbaiten bizitza salbatu duzula sentitu duzu? Zer sentsazio sorrazten dizu horrek?

Egiten dugun lana orokorrean arriskutsua da eta askotan gure bizitza arriskuan jartzen dugu: kamioekin edo beste ibilgailuekin interbentzioetara joaten, leku arriskutsuetan sartzen (etxe edo industriako suteetan), baso-suteetan... Zorionez, egoera guztiak ez dira hil ala bizikoak, eta ditugun protokolo, erreminta eta materialekin arrisku hori asko murrizten dugu.

Pertsona bat egoera zail edo zaurgarri batean laguntzeak asebetetasun handia sorrazten dit, eta aldi berean, egiten dudana lana gizartearentzat oso baliagarria dela sentitzen dut.

Entrevista a **Argia Langarika**, bombera del **Servicio de Bomberos** del Gobierno de Navarra en el Parque de **Auritz / Burguete**.



ERREPORTAJEA



Bidean sozietate publikoak Nafarroako garraio sanitarioaren kudeaketa hartu du

Bidean sozietate publikoak 57.838 lekualdaketa egin ditu jardueraren lehen hiru hilabeteetan

Maiatzaren 31n zerbitzuaren erantzukizun osoa hartu zuen bere gain Bideanek. Sozietate publikoak lau hilabete daramatza Nafarroan garraio sanitarioaren zerbitzua ematen, SSG eta Baztán-Bidasoa enpresek orain arte betetzen zituzten funtzioak progresiboki bere gain hartuz. Juridikoki, sozietate mugatua da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (CPEN) baitan dago eta Osasun Departamentuari atxikirik dago. Erreleboa pixkanaka egin da, zerbitzua bermatzeko. Hiru operadoreak epe laburrean, elkarrekin egon ziren, eta ekainetik aurrera, Bidean izan da funtsezko zerbitzu horren arduraduna Foru Komunitate osoan.

Programatutako garraioa jardueraren % 80 baino gehiago da, 48.288 lekualdaketaekin, eta 9.550 premiazkoak dira. Hiru hilabete hauetan, programatutako garraioa izan da jardueraren zatirik handiena, 48.288 lekualdaketaekin (17.098 ekainean, 15.468 uztailen eta 15.722 abuztuan). Premiazko

9.550 gehitu zaizkie, horietatik 7.920 Oinarrizko Bizi Euskarriarekin (OBE) eta 1.630 Bizi Euskarri Aurreratuekin (BEA).

Bideanen helburu nagusia osasun-garraio segurua, irisgarria eta zerbitzu bakoitzean esku hartzen duten gainerako baliabide publikoekin koordinaturik dagoena eskaintzea da. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ezarritako kalitate eta segurtasun irizpideetan oinarritzen da.

Pazienteen lekualdatzea aurretik programatutakoa (kontsulta, tratamendu edota zentroen arteko lekualdaketa) edo premiazkoa (larrialdiak) izango da. Izan ere, sozietate publiko honen eginkizuna osasun zerbitzu osagarri eta haraindiko bat ematea da; Nafarroako biztanle guztiak zaindu eta senda daitezzen, osasun-zentroetatik hasi eta etxeraino helduta, baliabide eta profesional propioekin.

ERREPORTAJEA

Bidean, xehetasunean

Bideanek 432 langile ditu: zuzendaritza taldea, administratzailea eta anbulantzietako profesionalak (teknikariak, gidariak eta abar). Horietatik, 400 orain arte zerbitzua ematen zuten enpresetako langile subrogatuak dira, eta 24, kontratazio berrikoak.

Iruñeko Agustinos industrialdean dago Bideanen egoitza nagusia, eta eraikin batek osatzen du. Eraikinak 540 metro koadroko bi solairu ditu: bulegoetarako, koordinazio-zentrorako, prestakuntza-zentrorako eta beste administrazio-bulego batzuetarako, eta 2.450 metro koadroko nabe bat 50 anbulantziarako, biltegietarako eta guardiako langileentzako.

Nabe hori gaur egun Foru Komunitate osoan martxan dauden gainerako guneei batuko zaie, 12 guztira, eta hiru berri, Iruñeko Agustinos industriadekoa, eta beste bi, bat Tuteran eta bestea Zangozan.

Anbulantzien flotari dagokionez (hobekuntza-eta berrikuntza-gune nagusietako bat da), Bidean zentroak 110 anbulantzia ditu; horietatik 61 berriak dira, renting bidez erosiak, eta 49 Baztán-Bidasoa enpresatik subrogatu dira, guztiak ere bi urte baino gutxiagokoak. Horietatik, 76 anbulantzia lekualdatze programatuetarako dira, eta 34 asistentzialak. Asistentzialen artean, 27 oinarritzko bizi-zerbitzukoak dira, 6 bizi-zerbitzu aurreratukoak eta 1 bariatrikoa, obesitate morbidoa duten pazienteak garraiatzeko anbulantzia berezia, eta beste hobekuntza-puntu bat, Nafarroan eskuragarri ez zegoen zerbitzua baitzen.

Aurrekontuari dagokionez, aurten Bideanek 17.177.300 euroko partida du, eta Osasun Departamentuak jarri du eskuragarri, joan den otsailean erakunde instrumental izendatu ondoren.

Pertsonak erdigunean

Bideanen helburua kalitatezko osasun-lekualdaketa eraginkorra eta gizatiarra eskaintzea da, paziente bakoitzaren beharrei lehentasuna emateko eta ospitaleen,



konsulten eta larrialdien arteko koordinazioa indartzeko. Horretarako, anbulantzien flota berritu bat, denbora errealeko informazio-sistema bat eta 432 profesionaleko taldea ditu, horietatik 400 aurreko operadoreetako langileen subrogaziotik datoz.

Etorkizuneko profesionalen prestakuntza

Bidean, Osasun Larrialdietako Teknikari graduako eta garraio sanitarioko profesionaltasun-ziurtagirietako ikasleentzako praktika-zentro gisa lanean hasi da. Urriko deialdian ikastetxe publiko zein pribatuetako 58 ikasle sartu dira.



*La sociedad pública **Bidean** asume la gestión del servicio de **transporte sanitario en Navarra**, de forma progresiva para garantizar la continuidad del servicio. La sede central de Bidean se ubica en el polígono Agustinos de Pamplona / Iruña y se complementa con otras 14 bases distribuidas por toda Navarra.*

GOBERNUTIK



Irakurketa euskaraz Castejongo Liburutegian

Euskaraz irakurtzeak saria du, eta hala erakutsi dute Castejongo Liburutegian. Liburutegiak berak, Liburutegi Zerbitzuaren eskutik, Laubide Kultur Elkartearekin batera, eta Euskarabidearen babesarekin, haur eta helduen artean euskarazko liburuaren irakurketa sustatzeko kanpaina jarri zuen martxan udan.

Kanpaina, gutxienez, euskarazko 2 liburu irakurri eta irakurritakotik gehien gustatu zitzaiena zer zen kontatuz bideo bat egitea zen. Irailaren 19an, Castejonen euskararen eguna ospatu baino lehen, sari banaketa egin zen, eta Euskarabideko Zuzendari Kudeatzailea den Jabi Arakamak banatu zituen.

Parte-hartzaileek, Euskarabidearen eskutik, tote-bag bat jaso zuten, Irati Fernandez Gabarain marrazkilaria nafarraren ilustrazio bat inprimaturik zuena. Eta barruan, askotariko bulego materialaz gain, "Bernart Etxepare" sariaren irabazleen bildumako euskarazko liburuak banatu ziren. Irakurketaren eta euskararen aldeko kultura-ekimena. ■



La **Biblioteca de Castejón**, junto a la **Asociación Cultural Laubide** y con el apoyo de **Euskarabidea**, puso en marcha en verano una **campaña para fomentar la lectura de libros en euskera** entre niños/as y adultos.



‘Iruñaldia’ jaialdiaren bigarren edizioak euskal kultur abangoardia aldarrikatu du: Geroa Gaur

Iruñaldia kultur jaialdiak euskal kulturako proposamen artistiko berritzaileak ezagutzera eman ditu: aurten bigarren ezin da, azaroaren 9tik 15era bitarte, Iruñeko hainbat agertokitan. Diziplina anitzeko jaialdiak zortzi diziplinako hamaika ikuskizun plazaratu ditu: euskal kulturako erreferente handiak eta sortzaile berrien proposamen berritzaileak uztartzen dituzte eta herritar orori daude zuzenduta.

Jaialdiak euskal kultur programazioan finkatzea du helburu, eta Geroa Gaur leloa ardatz hartuta, euskal kultur tradizioa aldarrikatzen du, hura eguneratu, berrinterpretatu, eraiki eta mundu garaikidearekin hartu-emanen jartzeko. Iruña grabitate-zentro bihurtzeko eta hirira sorkuntza garaikideak erakartzeko sortu zen Iruñaldia jaialdia, euskal tradizio, abangoardia eta kultur ekoizpenekin modu naturalean bat eginez. Aurten, Iruñaldia Nafarroako Gobernuaren lankidetzan izan du, Euskarabidearen bidez.

Programazioaren proposamen artistikoa jaialdiaren nortasunaren isla da. Batetik, diziplina anitzeko jaialdia da, musika, dantza,

literatura, antzerkia, zirkua, performancea, gastronomia eta esperientzia digitalak uztartzen baititu. Bestetik, belaunaldien arteko hartu-eman sustatzen du, euskal kulturaren erreferente handien jakintza eta jardunbidea eta sortzaile berrien ahots ausart eta freskoa bateratuta. Hala, programa orekatua eta erakargarria eskaintzen da, gustu eta sentsibilitate guztiendako aproposa.

Jarduerak euskaldunei eta euskal kulturarekin modu naturalean bat egin nahi dutenei daude zuzenduta, eta hiriko bederatzi gunehauekin eginen dira: Gayerre Antzokian, Karrikirin, Elkarren, Katakraken, Kondestablen, Laban, Baluartan, Geltokan eta Iruñeko hainbat kaletan. ■

IRUÑ<LDIA

Euskarabidea ha partecipado en el **ciclo cultural vanguardista en euskera Iruñaldia**, organizado por el Ayuntamiento de Pamplona / Iruña y Loraldia

PARLAMENTUTIK



JAIALDi

JULY 29 – AUGUST 3, 2025 ♦ BOISE, IDAHO

Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak Boisen ospatutako Jaialdian parte hartu zuen

Uztailaren 29tik abuztuaren 3ra bitartean Boiseko Jaialdia antolatu zuen bertako Diasporak. Bost urtetik behin antolatzen da AEBetako Idaho estatuko hiriburua eta hiri handiena den Boisen. Aurtengoa ere oso arrakastatsua izan zen: 30.000 lagunek baino gehiagok parte hartu baitzuten antolatutako ekitaldietan, eta musikaz, dantzaz, kirolaz eta tradizioez gozatzeko egokiera bikaina izan zuten bertaratutakoek. Euskal Herritik kanpo egiten den euskal elkarretaratzerik handiena den horretan, hainbat erakundetako kideak

ere bertaratu ziren; besteak beste, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.

Bertaratu ez eze, Unai Hualdek "*International Symposium on the Basque Diaspora and Cultural Expressions, Zortziak Bat*" jardunaldian parte hartu ere egin zuen, hango unibertsitateak antolatutako ekitaldian. Bertan, Hualdek azaldu zuen Nafarroako Parlamentua eta Gobernua, Kanpo Harremanetarako Departamentuaren bitartez, gure erkidegoko hainbat eskualdetako (Erro, Aezkoa, Bortzirriak, Erribera) artzain euskaldunen


PARLAMENTUTIK

emigrazioaren fenomenoaren ikerketa bultzatzen ari direla memoriaren ikuspegi zabaletik. Horrezaz gain, Nafarroak dituen eskumenak eta parlamentuaren lan dinamika azaltzeko egokiera ere izan zuen Hualdek hango ekitaldian: Parlamentuak Nafarroako Kanpoko Herriarrekiko Harremanei buruzko Foru Legea onartu zuen 2023an, Foru Komunitatetik kanpo bizi diren herritarrekin izan beharreko harremanetarako esparrua arautzeko.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Euskal Artzainak Ameriketara Elkartearekin duen lankidetzahitzarmena ere nabarmendu zuen Parlamentuko Lehendakariak, eta, besteak beste, gogorarazi zuen legebiltzarrak proiektu horietako batzuk ekonomikoki laguntzen dituela, konparazio baterako, 2021eko abenduan inauguratu zen Elgorriagako euskal artzainaren museoarena.

Halaber, Hualdek adierazi zuen Ameriketara urtero ospatzen den Euskal Artzainaren Egunaren ospakizunarekin lankidetzan aritzen direla, eta Erro edo Aezkoa bailaretako artzainen emigrazioaren fenomenoari buruzko argitalpenak sustatu eta finantzatzen dituztela. "Nafarren aztarna Far Westen" liburuaren argitalpena ere nabarmendu zuen Hualdek, bai eta ale batzuk banatu ere, nola Boiseko Unibertsitaterako hala Boiseko Euskal Museorako.

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak beste ekitaldi instituzional eta kultural batzuetan ere parte hartu zuen Boisen, eta hara emigratu zuten nafar artzain familia batzuekin egoteko egokiera ere izan zuen. ■



El Presidente del Parlamento de Navarra, Unai Hualde, participó en el Festival Jaialdi de Boise, tanto en actos institucionales y culturales como en las jornadas organizadas por la Universidad del Estado de Boise. Hualde ha explicado las diferentes líneas de trabajo que se llevan a cabo por las instituciones forales de Navarra para recuperar la memoria de los pastores navarros que emigraron a EEUU.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

LARRIALDIAK.....EMERGENCIAS

Anbulantzia	Ambulancia
Arrisku berehalakoa	Riesgo inminente
Babesa	Protección
Bihotz-biriketako biziortzea	Reanimación cardiopulmonar
Deskarga elektrikoa	Descarga eléctrica
Ebakuazioa	Evacuación
Elurte handia	Nevada fuerte
Eremu ariskutsua	Zona peligrosa
Erradiazioekiko esposizioa	Exposición a radiaciones
Errailetik irtetea	Descarrilamiento
Erredura	Quemadura
Erregaia	Combustible
Erreskatea	Rescate
Euri jasa	Lluvia intensa
Haize bolada	Ráfaga de viento
Hauts lainoa	Nube de polvo
Ibilgailuak harrapatzea	Atropello por vehículo
Ikuspen urria	Visibilidad reducida
Intzidentea	Incidente
Iraulketak	Vuelco
Istripu larria	Accidente grave
Itzalgailua	Extintor
Izotza	Hielo
Kea	Humo



Kolpea	Golpe
Kutsadura	Contaminación
Laino itxia	Niebla densa
Laneko istripua	Accidente laboral
Larrialdietako ibilgailua	Vehículo de emergencias
Larrialdietako taldea	Equipo de emergencias
Lehen sorospena	Primeros auxilios
Luizia	Desprendimiento
Lurrikara / Seismoa	Terremoto / Sismo
Material sukoia	Material inflamable
Ohatila	Camilla
Salbamendua	Salvamento
Segurtasun arauak	Normas de seguridad
Soroslea	Socorrista
Sorospen deia	Llamada de socorro
Su hesia	Muro cortafuegos
Suaren kontrako materiala	Material ignífugo
Substantzia arriskutsua	Sustancia peligrosa
Sutea	Incendio
Sute sorgunea	Foco de incendio
Talka	Colisión / Choque
Tximista	Rayo
Uholdea	Inundación
Zapaltzea	Aplastamiento





Euskarabideak herritarrei arreta elebiduna emateko gida bat jarri du administrazio publikoetako langileen eskura

Euskarabideak jarduketa-gida bat argitaratu du idatzizko komunikazioetan, herritarrekin zein beste administrazio publikoekin, euskararen erabilera hobetzeko eta harmonizatzeko. Dokumentuaren helburuak dira indarrean dagoen hizkuntza-araudia betetzen dela bermatzea eta Nafarroako Gobernuaren departamentuei araudi horren aplikazioa erraztea.

Nafarroako eremu ezberdinetan (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna) administrazioak idatziz eta euskaraz jasotzen dituen idazkiekin nola jokatu behar duen jakiteko irizpideak ematen ditu gidak, besteak beste.


Ekimen honen bidez, Nafarroako Gobernuak administrazio inklusiboagoa finkatu nahi du, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko. Aldi berean, bere unitateei tresna argi eta eraginkorrak ematen dizkie eremu instituzionalean euskararen erabilera behar bezala kudeatzeko, teknologia eta giza baliabide espezializatuak konbinatuz. ■



Euskarabidea pone a disposición del personal de las Administraciones Públicas una **guía para facilitar la atención bilingüe a la ciudadanía**. El documento busca garantizar el cumplimiento de la normativa lingüística vigente

OHAR HISTORIKOA

Irainak eta biraoak euskaraz, lehen eta orain



Aspaldiko ustea da euskara dugula hizkuntzetan zaharrena eta, garbirik bada, garbiena. Gainera, biraorik eta irainik gabea omen da gure hizkuntza zoragarria. XVIII. eta XIX. mendeetan zabaldu zen ustea. Hala, adierazi izan digute euskaraz ez zegoela biraorik, edo gutxienez ez zegoela birao gogorrik. Baina usteak erdi ustelak izaten direla badakigu, eta oraingoan ere garbi dago hori: gure hizkuntzan asko baitira hitz eta adierazpide zakarrak.

Horren adibide garbia dugu 2007an argitaraturiko **“Biraoak. Nafarroan bilduak”** liburua. Patxi Salaberri Zaratiegik eta Juan Jose Zubiri Lujanbiok argitaratutako lan horretan aipatzen diren madarikazio gehienak Nafarroakoak dira, ia guztiak belarritz jasoak edo hiztegi dialektaletatik hartuak. Liburua zinez mardula eta mamitsua da euskal biraoetan murgiltzeko, gaur egun euskaldunok

erabil ditzakegun hitz eta esamolde asko baitaude bizirik oraindaino.

Alabaina, euskarazko biraoen eta irainen aberastasunaren kontua aspaldikoa dugula argi legoke kontuan hartzen badugu aurtan bertan Nafarroako Artxiboak aurkeztu duen erakusketa: **“Beste garai bateko irainak”**. Erakusketa horretan, XVI. eta XVII. mendeetako dokumentuetan iraintzeko euskaraz nahiz gaztelaniaz erabilitako hitz eta esamoldeen bilduma egin da. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, 1500etik 1836ra bitartean, iraina protagonista duten 9.000 auzi baino gehiago biltzen ditu.

«Beste garai bateko irainak. Nafarroa, XVI.-XVII. mendeak» izeneko erakusketa horrek dokumentuetan gordetako irainen hautaketa eta testuinguru historikoaren analisiaren baliozkotasuna erakustea du helburu, iraganeko


OHAR HISTORIKOA



gizon-emakumeek nola hitz egiten, jokatzeko eta pentsatzeko zuten ulertzeko helburuarekin. Ezagutza horretatik abiatuz, gure orainarekin aldera genezake bereizten eta batzen gaituzten gizarte ezaugarriez ohartzeko. Hori gutxi balitz bezala, gure hizkuntzaz ari garela, erakusketak begien aurrean paratzen digu dokumentaturik euskaraz adierazkortasunez aritzeko lehen ere birao eta irainak bazirela; alegia, gurea hizkuntza funtzional aberatsa izan dela lehen eta orain.

Erakusketaren haritik tiraka, hau ere nabarmen genezake: 2016 eta 2023 urteen artean Espainian, ohorearen aurkako delituengatik (irainak eta kalumniak) 5.300 epai baino gehiago eman omen ziren. Eta geroztik salaketa asko izan omen dira gorroto-delituengatik. Datu horiek adierazten digute biraoak eta irainak maiz erabiltzen direla kaleetan, estadioetan, komunikabideetan edota sare sozialetan. Irain horien bidez adierazten dira haserrea, iseka, mespretxua, gorrotoa edo xenofobia. Hala bada, lehen gertatzen zen bezala, egun ere biraoen eta irainen bidez gizabanakook pentsatzen, sinesten eta baloratzen duguna islatzen ari gara.

Amaitzeko, esan dezagun egoera desberdinen aurrean, euskaraz ari garenean adierazpide egokia aurkitzeko eta erabiltzeko aitzakiarik ez dugula; alegia, barne-mina, sentimendu mikatza, haserrea, gorrotoa, amorrua edota ezina adierazteko lanabes bikainak ditugula. ■



Los insultos y las blasfemias en euskera a través del tiempo

El Archivo de Navarra, a través de la reciente exposición "Insultos de otro tiempo. Navarra, siglos XVI-XVII", ofrece documentados insultos empleados históricamente en euskera. Además, existe una publicación de 2007, "Biraoak. Nafarroan bilduak", con insultos y calumnias en euskera recogidas oralmente.



Mahairako edo arropan jartzeko identifikatzaile bat nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

plangintza@navarra.es

Anima zaitez ENAP aldizkariaren hurrengo zenbakietan parte hartzera, zure ekarpenak eskertuko ditugu!



Itzuli
Itzultzaile neuronalak

- Itzultzaile automatikoa baliagarria da testuak ulertzeko.
- Testuak sortzean, ezinbestekoa da emaila errepasatzea.



Agurra ele bitan egiteak euskarazko elkarriketa errazten du:
"Egun on, buenos días"



euskarabidea
Euskararen Nafar Institutua

www.euskarabidea.eus

Paulino Caballero, 13
31002 Iruña
848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

EUSKARABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

- Itzulpengintza: Itzulpenflow eskatzaileen bidez.
- Hizkuntza aholkularitza.
- Aldibereko interpretazioa.
- Euskara maila egiaztatze probak.
- Euskara ikastaroak.
- Euskararen liburutegi espezializatua.

Hizkuntza txikiek mundua handitzen dute



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea